

UPV/EHUn Euskaraz Irakasteko Gaitasun Agiriko Probak (2022)

1. ARIKETA: AUKERA ANITZEKO GALDERAK

Galdera hauetako bakoitzak lau erantzun ditu aukeran. Aukeratu ezazu erantzun zuzena edo egokiena, eta idatz ezazu ariketa honen amaierako (7. orrialdean) erantzun-taulan bakoitzari dagokion letra. Erantzun okerrak ez dira zigortuko.

1. *Bizitza honetan, gazi beste gozo izaten da. Alegia:*

- a) Gozoa baino ez da eskuratzen.
- b) Kalte besterik ez da izaten.
- c) On baizik ez da izaten.
- d) Ona eta txarra neurri berean jasotzen dira.

2. *Gurasoei _____ anai-arrebei ere kontatu nien gertatutakoa.*

- a) ez ezik
- b) izan ezik
- c) gabe
- d) ezik

3. *Aizue, datorren astean ere hondartzara joango gara?*

- a) Bai eta gustura joan ere!
- b) Nola ez ginen joango, bada!
- c) Ez dago zertan galdetu behar!
- d) Galdetuta ere!

4. _____ atsegina ____ lagun hori, gero!

- a) Zelako / da
- b) Zeinen / dela
- c) Nolako / denik
- d) Zein / den

5. Zein dago zuzen?

- a) Langileak dira etorri direna berandu.
- b) Guri dagokigu lana egiteak.
- c) Zure aspaldiko lagun horrek adeitsua dirudi.
- d) Akats hori buruhaustek ekar ditzake.

6. Zein dago zuzen?

- a) Horrelako irudiak Iruñeako hainbat kaleetan itsatsi dituzte.
- b) Ikasleek oporrak hartzen dituzte irailan.
- c) Azpeitiatik Azkoitiara ez dago hain kilometro asko.
- d) Olatu itzelak ikusi nituen Bizkaiko kostaldean.

7. Aukeratu ezazu zuzena.

- a) Beti uste izan dut mendian ibiltzea eginahal haundia eskatzen duela.
- b) Bizikletan ibiltzea samurragoa ote da, bada?
- c) Nik boxeoan ukabilkadak hartzea deritzot gogorrena.
- d) Edozein kiroletan aritzeak ez dakit oso onuragarria ote den.

8. Zein dago OKER idatzita euskara batuan?

- a) Clint Eastwooden lanetaz hitz egin dugu.
- b) Clint Eastwooden lanei buruz hitz egin dugu.
- c) Clint Eastwooden lanez hitz egin dugu.
- d) Clint Eastwooden lanen gainean hitz egin dugu.

9. *Euskaltzaindiaren Hiztegia* aintzat hartuta, aukeratu zuzena.

- a) Unibertsitari.
- b) Entzulego.
- c) Politikolari.
- d) Langileria.

10. *Zuek baino lehenago amaitu dugu, goizago hasi* _____.

- a) baigara
- b) bait gara
- c) baikara
- d) baitgara

11. *Astebururako, abisu horia* _____ *dute haizeagatik.*

- a) atzeman
- b) susmatu
- c) iragarri
- d) asmatu

12. *Gure bizilagun horrek ez du batere zentzurik.*

- a) Buruarin hutsa da.
- b) Burua lehengo lepotik dauka.
- c) Ez du ez hankarik eta ez bururik.
- d) Ez da ez ur ez ardo.

13. *Atsegin ez duzuna egiten duzunean,* _____.

- a) zeure buruaz beste egiten duzu
- b) gogoz kontra egiten duzu
- c) okertuta egiten duzu
- d) gogoetarik gabe egiten duzu

14. Honako hauetatik zein dago ondo idatzita?

- a) Bostgarren ihardunaldia.
- b) Testu higuingarria.
- c) Gustoko iendea.
- d) Larogei gaiso.

15. Honako hauetatik zein EZ dago ondo idatzita?

- a) Etorri ezkerro.
- b) Hasiz gero.
- c) Harrezkerro.
- d) Igandea ezkerro.

16. Honako hauetatik zein dago ondo idatzita euskara batuko arauen arabera?

- a) Ume jaio berriek ez dute hortzik.
- b) Hitzegiten hasi eta ez daki bukatzen.
- c) Gidari hasiberriak ez dira oso trebeak izaten.
- d) Aslehenerarte ez naiz itzuliko.

17. _____ *diru gehiago irabazi*, _____ *gehiago nahi izaten dugu*.

- a) Zenbat eta / hainbat eta
- b) Orduan eta / orduan eta
- c) Gero eta / hainbat
- d) Gero eta / gero eta

18. *Anek edatekoa ekarri du*. _____.

- a) Nik baita.
- b) Nik baita ere.
- c) Baita nik ere.
- d) Baita ere nik.

19. **Zein dago zuzen?**

- a) Atzo hamar kilometro ibili ginen eta gaur beste horrenbeste ibili egin gara.
- b) Saldu ez, oparitu egin zidaten autoa.
- c) Erloju hori mila euro ordaindu egin zuten.
- d) Inguruan ikusi ez eta ozen deitu egin dio umeari.

20. **Zein dago OKER?**

- a) Alderdi irabazleak hauteskundeetan iruzur egin duen susmoa zabaldu da jende artean.
- b) Alderdi irabazleak hauteskundeetan iruzur egin duelako susmoa zabaldu da jende artean.
- c) Alderdi irabazleak hauteskundeetan iruzur egin duela susmatzen du jendeak.
- d) Alderdi irabazleak hauteskundeetan iruzur egin duelaren susmoa zabaldu da jende artean.

21. *Hain da handia krisia*, _____ *urte asko igarota ere lehengo bizi-maila berreskuratzea kostako* _____.

- a) zeren / dela
- b) non / baita
- c) ezen / dela
- d) non / da

22. *Udaletxean ikusi zintudan* _____; *zertan ari zinen han?*

- a) aurreko batean
- b) beste egunean
- c) lehenean
- d) egun batetan

23. **Aukeratu euskaraz zuzen idatzita dagoen data.**

- a) Gasteizen, 2022ko martxoaren 11an.
- b) Gasteizen, 2022ko martxoak 11n.
- c) Gasteiz, 2022ko martxoaren 11.
- d) Gasteizen, 2022ko Martxoaren 11ean.

24. **Honako esaldi hauetatik zein da zuzena?**

- a) Benetazko istorioetan oinarritutako liburuak gustuko ditut.
- b) Ez dira elkar ezagutzen.
- c) Zergatik ez diozu lehenago etorerrarazten Mikeli?
- d) Etxe hori arkitekto ospetsu batek diseinatu da.

25. Honako esaldi hauetatik zein da zuzena?

- a) Sortutako arazoei dagokionez, lasai egon oraingoz.
- b) Lan guztiak amaituak behar ditugu etziko.
- c) Urean diluitutako azukreaz estaltzen du bizkotxoa.
- d) Zutabe honek bost metro neurtzen ditu.

26. Zein dago zuzen idatzita?

- a) Etxearen aurrealdean haritz bikain bat dute gurasoek.
- b) Ez dut sekulan halakorik ikusi nere bizitzan.
- c) Arrai usaiak goraka eragiten dit.
- d) Galdetu eta nor-nahik erantzungo dizu.

27. Hitz hauetatik zein EZ dago euskara batuaren idaztarauen arabera idatzita?

- a) Batipat
- b) Astiro-astiro
- c) Behinik behin
- d) behin-behingo

28. Honako zein zerrendatan dago hitz bat tokiz kanpo?

- a) lehenengoa / lehenbizikoa / aurrenekoa
- b) unatu / akitu / nekatu
- c) heldu / eutsi / behatu
- d) iragan / pasatu / igaro

29. *Klima-aldaketa izango da _____ datozen egunotan munduko ekonomia handienak batuko dituen goi-bileran.*

- a) irizkide
- b) hizpide
- c) izurrite
- d) helegite

30. *Bilbotarrak dotore askoak dira. Zer esan nahi du?*

- a) Bilbotar asko dotoreak dira.
- b) Bilbotarrak asko dira, eta denak dotoreak.
- c) Bilbotarrak oso dotoreak dira.
- d) Bilbotarrak dotoreegiak dira.

31. Zenbat jende da pentsaera horretakoa?

- a) EAEko herritarren % 80.
- b) E.A.E.ko herritarren % 80a.
- c) EAE-ko herritarren % 80-a.
- d) E.A.E.-ko herritarren %80.

32. Zein dago zuzen idatzita?

- a) Umeek pitxitxi deitzen diote katuari.
- b) Esaerak dio: Zor zaharra zor txarra da.
- c) Franck Dolosor, kazetaria: “egiten dudana egiteko, ordaindu egingo nuke”.
- d) “Ez zioat inori esango”, esan zion bere buruari.

33. Puntuazioa. Zein dago zuzen idatzita?

- a) Nik, zuk baino askoz errazago lor dezaket helburua.
- b) Zure ustez bestean lanak ez du inolako zailtasunik.
- c) Uste baino beranduago bukatuko dugu lana; izan ere, aurreikusi gabeko arazoak sortu zaizkigu.
- d) Zuk arazorik gabe osatu duzu egitekoa, guri, aldiz, gehiago kostatzen ari zaigu.

34. Ez omen du egia esateko asmorik. Aukeratu baliokidea:

- a) Dirudienez, ez du egia esango.
- b) Ez dirudi egia esango duenik.
- c) Esan du ez duela egia esateko asmorik.
- d) Ziurra da ez duela egia esateko asmorik.

35. Zein dago zuzen?

- a) Antza denez, ez duela euria egingo.
- b) Dirudi ez duela euria egingo.
- c) Esango nuke ez duela euria egingo.
- d) Itxura denez, euria egingo duela.

36. Zein dago zuzen?

- a) Iñigo Urkullu, lehendakariak, atzoko agerraldian Bilbon izandako istiluez hitz egin zuen.
- b) Iñigo Urkullu lehendakariak atzoko agerraldian Bilbon izandako istiluez hitz egin zuen.
- c) Iñigo Urkulluk, lehendakaria, atzoko agerraldian Bilbon izandako istiluez hitz egin zuen.
- d) Lehendakariak Iñigo Urkulluk atzoko agerraldian Bilbon izandako istiluez hitz egin zuen.

37. Athletic Damaris Egurrola fitxatzeko asmotan _____ zurrumurrua hedatu da.

- a) dabilelakoaren
- b) dabilelaren
- c) dabil
- d) dabilelako

38. Ni ez naiz iristen; _____ ura, mesedez?

- a) hurbiltzen didazu
- b) hurbilduko didazu
- c) hurbil ahal didazu
- d) hurbil iezaadazu

39. Honako esaldi hauetatik zein da zuzena?

- a) Zuretzat ekarri dizut oparia.
- b) Etxearentzat erosi ditut zapatilak.
- c) Esaten ari natzaizu kontuz ibiltzeko.
- d) Boligrafoarekin idatzi beharrezko proba da.

40. Zein da zuzena?

- a) Beste edozein tokietan bezala bizi gara ere hemen.
- b) Bai, han famili batekin egon nintzen ere.
- c) Egun horretan irakaskuntzan dihardutenak jaia izaten dute.
- d) Jende asko da horrelaxe pentsatzen duena.

41. Zein dago zuzen?

- a) Gauza horiek ez dira edozein pertsonen esku egoten.
- b) Langile batek ahal duen adina dirua aurrezten saiatzen da.
- c) Urdurik nabil aspaldian, hartzen dudak botikagatik edo.
- d) Azken hauteskundeetan alkate aukeratu zuten.

42. *Usoak balira bezala agertzen dira, baina belatzak dira, zinez.* Bestela esanda: _____, *belatzak dira, zinez.*

- a) Usoak balira bezala agertuz...
- b) Usoak balira bezala agertzearren...
- c) Usoak balira bezala agertzeagatik...
- d) Usoak balira bezala agertuagatik...

43. *Asko _____ ikasten da ongi _____.*

- a) idazten eta irakurtzen / idatziz
- b) idatzi eta irakurri / idatziz
- c) idatziz eta irakurriz / idazten
- d) idatzi eta irakurri / idazten

44. *Honako hauetatik zein dago ondo idatzita?*

- a) Joxe Migel Garin da gure herriko Alkatea.
- b) Senegaldarrak eta Marokoarrak dira gure bizilagunetako batzuk.
- c) Donostiko udala eta Bilbokoa elkar hartuta ari dira lanean.
- d) UPV/EHUKo Bizkaiko Campuseko errektoreordea da.

45. *Hitz multzo hauetan, zein dago ondo idatzia?*

- a) Hurrengoa, hurrin, urbil, horria.
- b) Urrengoa, urrun, hurbil, horria.
- c) Hurrengoa, urrun, urbil, orria.
- d) Hurrengoa, urrun, hurbil, orria.

46. *Mundu osoko ekonomia, _____, _____ arriskuan dago.*

- a) gurearen barne / beheara jotzeko
- b) gurea barruan / beheraka egiteko
- c) gurea barnean / behe jotzeko
- d) gurea barne / beheara jotzeko

47. *Oso nekatuta nengoen eta bileran _____.*

- a) lo hartu nintzen
- b) loa hartu nuen
- c) loak hartu ninduen
- d) loak hartu zidan

48. _____ ere egin behar dira.

- a) Haurrak hasi ezezik hezi
- b) Haurrak hazi ez ezik hezi
- c) Ahurrak hazi ez ezik hesi
- d) Ahurrak hasi ez ezik hesi

49. *Honako hitz elkartu hauetatik zein EZ dago ondo idatzita?*

- a) Kultur-etxea.
- b) Kultura-etxea.
- c) Kultura etxea.
- d) Kultur etxea.

50. *Honako hitz elkartu hauetatik zein dago ondo idatzita?*

- a) Zehatz mehatz.
- b) Txuri urdinak.
- c) Zurru-murrua.
- d) Esamesa.

AUKERA ANITZEKO GALDERAK: ERANTZUN-TAULA

1	11	21	31	41
2	12	22	32	42
3	13	23	33	43
4	14	24	34	44
5	15	25	35	45
6	16	26	36	46
7	17	27	37	47
8	18	28	38	48
9	19	29	39	49
10	20	30	40	50

2. ARIKETA: IRAKURRIAREN ULERMENA

Irakur itzazu arretaz hiru testu hauek. Testu bakoitzaren amaieran, hari buruzko galdera batzuk dituzu. Aukeratu ezazu galdera bakoitzeko erantzun zuzen bakarra, eta idatz ezazu hari dagokion letra 13. orrialdeko erantzun-taulan. Erantzun okerrak ez dira zigortuko.

1. TESTUA:

Disekatuak

Valentzian, enpresari entzutetsu baten semea atxilotu dute, etxean mila animalia disekatutik gora zeuzkalako. Horietan ia erdiak babestutako espezieei zegozkien piztienak ziren. Bildumaren erakustokiak 50.000 metro karratuko azalera zuen, eta merkatu beltzean 29 milioi euroko balioa izan zezaketen pieza disekatuek. Gutizia hutsagatik hainbesteko sarraskia eragin dela jakiteak haserrea sortzen du. Eta niri, hozkia ere ematen dit.

Plazer hutsarengatik hil; disekatu eta horman zintzilikatu, bakoitzari bere latinezko izena erantsita; bilduma osatu, baina laguntxoei bakarrik erakusteko; prezioa jarri hildako animaliei... Mundu zaharkitu eta triste baten isla da Valentzian aurkitu duten pabiloi erraldoi horretan zetzana.

Korrikaren amaieran Karmele Jaiok marraztu zigun mundua juxtu kontrakoa dela esango nuke. Dena eros eta sal daitekeen garaian, aprezioan oinarritu; indibidualismoaren sasoian kolektiboa lehenetsi; etiketen aroan, etiketarik ez jartzera jo; gerren eta tiroen ordeztu, hitza erabili... Hizkuntza batetik abiatuta mundu oso bat eraiki daiteke. Gurea, zorionez, animalia disekatuei darien zoko usain eta iragan zaporetik oso urrun dago.

Andoni Egaña
Berria (2022)
(moldatua)

GALDERAK:

1. Testuaren arabera, zein baieztapen EZ DA EGIA?

- a. Andoni Egañari sentimendu kontrajarriak sortzen dizkio Valentziako aurkikuntzak.
- b. Valentziako bildumari gutizia hutsa eta sarraski itzela deritzo Andoni Egañak.
- c. Andoni Egañari zaharkitua eta tristea iruditzen zaio Valentziako pabiloi horri lotutako guztia: edukia, tamaina, estimatutako dirutza...

2. Valentziako atxiloketaren albistea eta Korrika lotzen ditu Egañak bere artikuluan,...

- a. Valentziako kultura eta gurea alderatzeko.
- b. Korrikak sinbolizatzen duen munduaren balio positiboak nabarmentzeko.
- c. gurea ez bezala Valentziakoa mundu zaharkitua dela azpimarratzeko.

3. Egañaren arabera, Karmele Jaiok irudikatutako mundua, besteak beste, oinarritzen da...

- a. dena erosi eta saldu ahal izatean.
- b. indibidualismoaren sasoian.
- c. gerren eta tiroen ordezt hitza erabiltzean.

2. TESTUA:

Energia berdea?

Zein da energiaren kolorea? Zergatik energia *berde* izendatzea? Hiztegiak dio energia dela sistema batek lan egiteko duen ahalmena, eta horrek ez omen du kolorerik. Baina guk, jatorrizko iturriaren arabera, kolore bat jartzen diogu energiari. Beltza edo grisa esaten diogu baliabide fosiletatik (ikatz, petrolio, gasa) lortzen denari. Hidrogeno arrosa da uraniotik eratortzen dena eta hidrogeno horia nahastutako iturrietatik (fossilak eta berriztagarriak) lortzen duguna. Eta berdea litzateke baliabide berriztagarrietatik datorrena. Ulertzekoa da publikoaren haserrea Europako Batasunak (EB) 2021ean modu trantsitorioan gasa eta energia nuklearra *berde* izendatu zituenean. Hau trikimailua!

Paradoxa energetikoa. Frantziak ez dio energia nuklearrari uko egin nahi eta Alemaniak Errusiako gasaren dependentzia handiegia du. EBko bi buru edo motore nagusiek “berdetasun” hori inposatu dute trantsizio energetikoaren bidean arnasa hartzeko. Eta kea saltzeko ere bai! Paradoxa txundigarri horrek Europa bere energia-sistemaren ispilu lotsagarriaren aurrean jartzen du: klimaren mende alde batetik, eta petro-estatu autoritarioetatik ekarritako erregai fosilen dependentzian, bestetik. EB Errusiaren energia-bezero nagusia da oraindik; EBko gas naturalaren % 46 eta petrolioaren % 25 inguru Errusiako Federaziotik etorri zen 2021ean. Eta erretolika berdearen gainetik ez dugu ahaztu behar: EBk % 25etik % 40ra handitu ditu gasen inportazioak azken hamar urteetan.

Energia nuklearraren alorrean Ekialdeko Europan ugaltzen ari diren proiektuak (Bulgarian eta Hungarian adibidez) eta uranioaren merkatu nuklearra Errusiaren kontrolpean daude. Ukrainaren inbasioaren ondotik zentral nuklearren inguruan bizi izandako tentsioek ez dute berri onik ekartzen; hots, nuklearra ezin da etorkizuneko energia-iturria izan.

Orain presaka. Ez soilik Europako gobernuak, korporazio energetikoak ere presaka ari dira energia berdeen bila negozio energetikoa mantendu ahal izateko. Energiaren Nazioarteko Agentziaren ustez, 2025erako petrolioaren erauzketa % 20ra jaitsiko da kasurik onenean, eta halakorik ez da ikusi II. Mundu Gerratik hona. Antonio Turielek dioenez, egungo energiaren trantsizio-ereduaren arazoa honako hau da: energia bizia, energia berriztagarria alegia, fosilizatu nahi dela; edo bestela esanda, naturaren erritmoei jarraitzen dien eta lurralde osoan barreiatuta dagoen energia merkatu kapitalistaren erritmoei jarraituko dien energia kontzentratua bihurtu nahi dela. Eta bide horretan berdetasun baskarra dolarrena da.

IÑAKI BARCENA HINOJAL

EKOPOL ETA EKOLOGISTAK MARTXAN-EKO KIDEA

Argia (2022)

(moldatua)

GALDERAK:

4. Zein da energiaren kolorea?

- a. Hiztegiak dio ez duela kolorerik.
- b. Hiztegiaren arabera, energia ahalmen bat da; hortaz, berez ez du kolorerik.
- c. Energiaren kolorea bere jatorriaren arabera da.

5. Paradoxa energetikoa da...

- a. Frantziak energia nuklearrari uko egin nahi ez izatea eta Alemaniak, berriz, Errusiako gasaren dependentzia handiegia izatea.
- b. Europar Batasuna (EB) Errusiaren energia-bezero nagusia izatea oraindik.
- c. erretolika berdearen gainetik EBren motore nagusiek beren ohiko energia-sistemekin jarraitzea: energia nuklearrari uko ez egitea, Errusiako gasarekiko menpekotasuna gero eta handiagoa izatea...

6. Testuaren arabera, zein baieztapen EZ DA EGIA?

- a. Energiaren Nazioarteko Agentziaren ustez, 2025erako petrolioaren erauzketa % 20ra jaistea albiste ona da.
- b. Iñaki Barcenak Europako gobernuei zein korporazio energetikoei leporatzen die negozio energetikoari eustearren dabilzala orain larri energia berdeen bila.
- c. Iñaki Barcenak, Antonio Turielen hitzak oinarritzat hartuta, ondorioztatzen du gaur egungo energiaren trantsizio-ereduaren atzean diru-gosea dagoela.

3. TESTUA:

Desazkundera, mehatxua edo aukera

Desazkundera proposatzen dute gero eta zientzialari gehiagok ingurumen-larrialdi globalari aurre egiteko irtenbide gisa: hazkunde ekonomiko mugagabeari uko egin, eta gizarte honetako produkzio- eta kontsumo-ereduak aldatzea. Jasangarritasuna eta giza ongizatea hobetu ditzakeela diote, hausnarketa sakon bati helduz gero.

Coloradoko Unibertsitateko hainbat zientzialarik gizartea desazkunderako prestatzen hastea proposatu dute berriki. Izan ere, iragarpenek diote herrialde aberatsetako hazkunde ekonomikoa asko motelduko dela: biztanleria zahartzen ari delako, ekonomia produkzio-sistema batetik zerbitzu-sistema batera pasatzen ari delako, zor publiko zein pribatua eutsiezin delako... Ikertzaileen ustez, gure garaia —etengabeko hazkunde ekonomikoarena— gizakion historian inoiz izan den hazkunde ekonomikorik bortitzenekoa izan da, baina anomalia historiko bat besterik ez da izan. Iraultza industrialean hasi, eta gure begien aurrean emango du bere azken hatsa.

Sortu den kolapso ekologikotik ateratzeko, ez da nahikoa teknologia berdeek egin dezaketen ekarpena. Karbono gutxiko teknologia guztien potentziala aztertu dute, eta teknologia horien hedapen baikorra ere ez litzateke nahikoa izango 2050erako proiektatutako energia-eskaerari erantzuteko. Beraz, desazkundera gizarteak kontzienteki aukeratu dezakeen irtenbidea ere bada.

Houstoneko Unibertsitateko D. Vollrath ekonomia-ikertzailearen arabera, giza ongizatean izan diren aurrerapenek bere sortu dute hazkunde ekonomikoaren beherakada. Hain zuzen, emakumeek eskubideetan emandako aurrerapausoek ekarri dute jaiotze-tasa murriztea eta, beraz, eskulana gutxitzea; eta ondasun materialak hainbeste ugaitu izanak eragin du zerbitzu-ekonomiarantz aldatzea. Beraz, giza ongizateko aurrerapenek eragindakoa bada desazkundera, zergatik ulertu mehatxu gisa?

Arazo edo aukera, desazkunderak erronka ekonomiko eta sozial nabarmenak ekarriko dituela uste dute Coloradoko ikertzaileek, eta, prestatu ezean, ondorio gogorrak eragin ditzakeela. Hasteko, herrialde aberatsetan, belaunaldi hau izango da bere gurasoek baino aberastasun-maila txikiagoa izango duen lehenengo belaunaldia.

Aitziber Agirre Ruiz de Arkaute
Elhuyar (2022)
(moldatua)

GALDERAK:

7. Testuaren arabera, zein baieztapen da egia?

- a. Desazkundeak jasagarritasuna eta giza ongizatea hobetuko ditu.
- b. Desazkundera da hazkunde ekonomiko mugagabeari uko egiteko bidea.
- c. Gero eta zientzialari gehiagok jotzen dute desazkundera ingurumen-larrialdi globalari aurre egiteko aukeratzat.

8. Zergatik proposatu dute hainbat zientzialarik gizartea desazkunderako prestatzen hastea?

- a. Iragarpenak betetzen badira, hazkunde ekonomikoa asko motelduko delako mundu osoan.
- b. Uste dutelako herrialde aberatsetako hazkunde ekonomikoak nabarmen galduko duela indarra.
- c. Uste dutelako gure garaia gizakion historian inoiz izan den hazkunde ekonomikorik bortitzenekoa izan dela.

9. Etengabeko hazkunde ekonomikoaren garai ...

- a. anomalia historikoa dela uste dute ikertzaileek.
- b. iraultza industrialarekin hasi zen, eta luzaroan iraungo du.
- c. gizakion historia da.

10. Karbono gutxiko teknologia guztien potentzialaren azterketatik ondorio hau atera daiteke:

- a. desazkundera gizarteak kontzienteki aukeratu dezakeen irtenbidea da.
- b. kasurik onenean ere, motz geldituko litzateke 2050erako aurreikusitako energia-eskaerari erantzuteko.
- c. giza ongizatean izan diren aurrerapen berek sortu dute hazkunde ekonomikoaren motelaldia.

ERANTZUNAK

1	2	3	4	5
6	7	8	9	10

3. ARIKETA: IDAZLANA

Azpiko taulan aukeran dituzun gaietako BAT hartu behar duzu (nahi duzuna, zerrenda osotik), eta gutxienez **300 hitzeko** idazlan bat egin, euskara batuan. A edo B aukera hautatu behar duzu idazlana egiteko. **Ongi lotu idazlana gai horri.**

A) Unibertsitateko irakasle-talde bat **aldizkari** bat ari da argitaratzen unibertsitateko ikasleentzat, eta eskatu dizute zure arloko edo intereseko gairen baten berri eman dezazun artikulua batean. Dibulgazioan ari zara (ez testu akademiko bat prestatzen). Zeure iritzia ere plazaratu dezakezu.

B) Eskolako apunteak prestatzen ari zara, eta gai baten inguruko azalpenak idatziz eman nahi dituzu, ikasleen eskura jartzeko. Gai bat orokorki azaldu eta hainbat zehaztasun emango dituzu, ikasleei azalpen argiak emateko.

ARLOA	GAIAK: aukeratu zure arloko bi aukeretako bakar bat	
Arkitektura	Azaldu gogoko duzun arkitekto ezagun baten lana.	Nola hazi beharko luke hiriak?
Arteak	Euskal margolariak	Kolorearen erabilera artelanetan
Biologia	Badu garrantzirik biologoen lanak gizartearen aurrerapenari eta hobekuntzari begira?	Mendelen aurkikuntzen garrantzi historikoa. Mendelen legeak
Ekonomia	Zor publikoa	Monopolioaren esanahia ekonomian
Filologia	Hizkuntzaren eta literaturaren didaktika	Baliabide erretorikoak hizkuntza biziberritzeko tresnatzat
Filosofia	Descartes eta Spinoza	Euskal filosofoak
Fisika	Termodinamika: kalorimetria, entropia...	Jainkoaren partikula: Higgs bosoiak
Geografia	XXI. mendeko migrazioak	Euskal Herriaren geografia: ezaugarri nagusiak eta ezaugarri horien ondorioak
Geologia	Itsas geologia	Denbora geologikoa. Eskala kronologiko erlatiboak eta absolutuak
Gizarte-zientziak	Demografia dinamikoa	Anarkismoa
Heziketa fisikoa	Jarduera fisikoa eta nutrizioa	Kirol-entrenamenduaren metodologia
Historia	Erdi Aroko hirien garapena	I. Mundu Gerra
Informatika	XML markaketa-lengoaia	Software librea eta administrazio publikoak
Informazioa	Realityak	Izan daiteke objektiboa irratia edo egunkari bat? Kazetaritzaren objektibotasuna
Kimika	Atomoa eta teoria atomikoa	Lotura metalikoa
Kriminologia	Nola egin dakioke aurre ustelkeriaren arazoari?	Txosten kriminologikoak: zer dira? Zertarako egiten dira? Nolako ezaugarriak dituzte?
Lan-harremanak	Lanaren antolakuntza	Enpresaburuen eskubideak eta betebeharrak
Matematika	Matematikaren historia laburra	Konikak eta Kuadratikak
Osasuna	Txertoak: zenbait pertsonak uko egiten die.	Elikagaien piramideak: zer da? Zertarako balio du? Zertan desbideratu ohi gara hartatik?
Pedagogia	Irakaskuntza telematikoa	Irakaskuntza Euskal Herrian
Psikologia	Balio dute gaur egun Freud-en teoria eta ikuspuntuak?	Zein dira psikologoaren lan-esparru nagusiak?
Teknologia	Espaziorako bidaia. Badute etorkizunik?	Telekomunikazio-sistemak eta telematika. Zertarako bata eta zertarako bestea?
Zuzenbidea	Laneko segurtasuna eta osasuna	Jabetza intelektualaren babes juridikoa

ARLOA:

IDAZLANAREN IZENBURUA (GAIA):

AUKERA (A edo B):

ARLOA:

IDAZLANAREN IZENBURUA (GAIA):

AUKERA (A edo B):

ARLOA:

IDAZLANAREN IZENBURUA (GAIA):

AUKERA (A edo B):

**EZ IDATZI EZER ORRIALDE HONETAN
AZTERTZAILEEK ERABILTZEKO ORRIA DA**

UPV/EHU-KO EUSKARA-PROBA. ZUZENKETA-ORRIA (1):

AZTERKETARIA:

NAN-zenbakia:

Zuzenketa-orria

Aukera anitzeko galderen proba

Zuzenak:	Okerrak:	Zuriak:
GAI (≥ 32)	EZGAI (< 32)	

Irakurmena

Zuzenak:	Okerrak:	Zuriak:
GAI (≥ 6)	EZGAI (< 6)	

Idazlana

GAI	EZGAI
-----	-------

AZTERKETA IDATZIA: GAI / EZGAI

Oharrak

Lehen zuzentzailea

Bigarren zuzentzailea

AHOZKO AZTERKETA

GAI	EZGAI
-----	-------

Oharrak

1. aztertzailea

2. aztertzailea

3. aztertzailea

UPV/EHU-KO EUSKARA-PROBA. ZUZENKETA-FITXA (2)
<EZGAI> DIREN AZTERKETETAN BETETZEKO

Azterketaria:

(Markatu X batekin azken zutabeen zein arlotan ez den gai azterketaria)

IDATZIA

Atala	Oharrak	Irizpideak (AKTA)	(X)
Edukia	ez dio heldu emandako gaiari	4.2.3. (a)	
Moldea		4.2.3. (b)	
	esaldi sinpleegiak; gutxi idaztea		
	erregistro desegokia		
	jokera desegokia		
	lexiko desegokia		
	lanaren egituraketa eskasa (kohesioa eta koherentzia)		
Zuzentasuna		4.2.3. (c)	
	ortografia gaizki		
	euskara batua ez ezagutzea edo errespetatzea		
	deklinabideko huts nabarmenak		
	aditza gaizki erabilia		
	jokera okerra		
Akatsak		4.2.3. (d)	
	mezua ulergaitz bihurtzen dute		
	akats larriak eta ugari		
Beste batzuk			

Oharrak:

AHOZKOA

Atala	Oharrak	Irizpideak (AKTA)	(X)
Azalpena		4.3.2. (1.a)	
	jario falta		
	ez du azalpena ongi antolatzen		
	ez da gai azalpen zehatzak emateko		
Zuzentasuna		4.3.2. (2.a)	
	egitura okerrak edo traketsak erabiltzen ditu		
	ahoskera eskasa		
Moldea		4.3.2. (3.a)	
	ez da gai euskara batuan jarduteko		
	ez da gai hizkera zaindua erabiltzeko		
Beste batzuk			

Oharrak: